



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, AGINDU-PROIEKTUA HASTEN DUENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN 2024KO URTARRILAREN 22KO AGINDUA, HAUR HEZKUNTZAKO EBALUAZIOA ETA OINARRIZKO HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGOKO EBALUAZIOA, MAILAZ IGOTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, TITULAZIOA ARAUTZEN DITUENA.

1.- XEDEA ETA HELBURUA

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak zehazten du zer prozedura bete behar den arau horretan aipatzen diren xedapen orokorrak egiteko.

Agindu honekin hasten den araua egiteko prozedurak hasiera-hasieratik eskatzen du erabaki formal bat hartzea, formaltasun hutsetik harago, arauaren beharrari eta bideragarritasunari buruzko gogoeta izan nahi duena egitearen egokitasunari buruz.

Lege horren 12. artikulua arabera, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da. Era berean, hasteko agindu honen betekizunak eta gutxieneko edukia ezartzen dira.

Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Agindua onartu zen, Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igotzea eta, hala badagokio, titulazioa arautzen dituen.

Proiektatutako aldaketak behar bezala identifikatutako interes orokorreko arrazoi bati erantzuten dio, hau da, aplikatu beharreko ebaluazio-araubidea hezkuntza-errealitate espezifiko batera egokitzeko beharrari, euskal hezkuntza-sistemara iritsi berri diren ikasle migratzaileak sartzaren ondorioz. Horretarako, Hezkuntza Sailak berariazko neurriak antolatu izan ditu pertsona horiei harrera egingo zaiela, benetan gizarteratuko direla eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan sartzeko, parte hartzea eta aurrera egitea zailtzen dieten oztopoak kenduko direla bermatzeko. Testuinguru horretan, ikusten da Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Agindua egokitu egin behar dela aniztasunari erantzuteko programetan parte hartzen duten ikasleen egoera berezira (programa horiek curriculumaren jarraipena egiteko behar den hizkuntza-kompetentzia eskuratzeko dira), indarrean dagoen araudiak ez baitu aurreikusten aurreikuspen nahikoa zehatza kasu horretarako.

Ikasle horiek ikastetxean sartzeko, hasierako fasean, berariazko hezkuntza-erantzun bat eman behar da, ikastetxeko komunikazio-hizkuntzan edo hizkuntzetan, eta, bereziki, euskaraz, behar den komunikazio-kompetentzia pixkanaka eskuratzeko aukera emango duena, curriculumean benetan sartzeko eta arlo, esparru eta ikasgai desberdinetako ikaskuntzak ekitate-baldintzetan garatzeko. Helburu horrekin, Hezkuntza Sailak aniztasunari erantzuteko programa espezifiko eta intentsibo bat du, sartu berri diren ikasle migratzaileei zuzendua, 24 eta 36 hilabete arteko epean curriculum arruntari probetxua ateratzeko behar den hizkuntza-gaitasunaren maila lortzea helburu duena. Premia- eta eraginkortasun-printzipioen ikuspegitik, proposatutako arau-aldaketa tresna egokia da ebaluazio-araubidea programa horren helburura eta logikara berariaz egokitzen dela ziurtatzeko, aurreikusitako hezkuntza-erantzunaren eta ikaskuntzak ebaluatzeako sistema formalaren arteko disfuntzioak saihestuz.





Ikasleak programa trinko horretan parte hartzen duen bitartean eta curriculumera gainerako ikasleen antzeko baldintzetan sartzeko behar den hizkuntza-gaitasuna oraindik lortu ez duen bitartean, ebaluazio-irizpide arruntak aplikatzea ez da egokia ikaslearen bilakaera akademikoa behar bezala baloratzeko; izan ere, trantsizio-aldi horretako muga erabakigarria ez da ikaslearen ikaskuntza-gaitasunetan oinarritzen, baizik eta curriculumeko ikaskuntzetara benetan iristeko hizkuntza-konpetentzia eskasean.

Ondorioz, proposatutako aldaketak proportzionaltasun-printzipioa betetzen du; izan ere, aurreikuspen espezifiko bat sartzen du, salbuespenezkoa eta aldi baterakoa, programa honetan sartutako ikasleentzat soilik, eta haien benetako egoerara egokitutako ebaluazioa egin ahal izateko behar den denboran soilik. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioari erantzuten dio, berariazko arau-estaldura ematen baitio tratamendu berezia eskatzen duen egoera bati, eta ikastetxeei esparru zehatz, argi eta koherentea eskaintzen baitie kasu horietan ebaluazio-erabakiak hartzeko. Horrela, erreforma bat dator EAEko hezkuntza-sistema osatzen duten inklusioaren, ekitatearen eta jarduketa pertsonalizatuaren printzipioekin, eta aukera arautzaile egokiena da emandako hezkuntza-erantzunaren eta aplikatu beharreko ebaluazio-araubidearen arteko koherentzia bermatzeko.

2. PROPOSATUTAKO ERREGULAZIOAREN EDUKIA

Orain arte, ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduaren bidez arautu dira. Agindu horren bidez, Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igotzea eta, hala badagokio, titulazioa arautzen dira.

V. KAPITULUAN (EBALUAZIOA, MAILAZ IGAROTZEA ETA TITULAZIOA OINARRIZKO HEZKUNTZAN), 30.7 artikuluan, zehazki, honako hau ezartzen da:

«7. – Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak onartutako programa baten esparruan, salbuespen gisa eta aldi baterako, jarduketa-plan pertsonalizatuak arlo edo ikasgai batzuk ez kalifikatzea badakar, kalifikaziorik eza «Kalifikaziorik gabe» (TZ) adierazpenaren bidez zehaztu beharko da. Kasu horretan, nahitaezkoa izango da honako baldintza hauek betetzea:

- a) Ikasleak arlo, jakintzagai edo esparru hori aurreko ikasturteetan egin ez izana.
- b) Ikaslearen JPPan ez agertzea dagokion arloaren, ikasgaiaren edo esparruaren curriculum-garapena.
- c) Arlo, ikasgai edo esparru bereko kalifikaziorik ezak ikasturte bateko iraupena ez gainditzea .»

Agindu berri honen xedea da atal hori aldatzea, ikasleek kalifikaziorik ez izatea juridikoki babesteko, salbuespenezko eta aldi baterako programa batean parte hartzen duten kasuetan. Kalifikaziorik eza programa horretan parte hartzen duen bitartean bakarrik mantenduko da, curriculumaren jarraipena egiteko behar den komunikazio-gaitasuna eskura dezan, eta ez da ikasturte bakarrera mugatuko.



Beraz, indarrean dagoen ebaluazio-agindua aldatzeko agindu bat izapidetzen hastea erabaki da, arau-eguneratze hori tresnarik egokiena baita kasu espezifiko horretan aplikatu beharreko ebaluazio-tratamenduari argitasuna, koherentzia eta segurtasun juridikoa emateko, bat etorritz EAEko hezkuntza-sistema informatzen duten inklusioaren eta aniztasunarekiko jarduketaren printzipioekin.

3. BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA ETA MATERIALA

6/2022 Legearen 4. artikuluan premia- eta efikazia-printzipioei buruz xedatutakoaren arabera, ekimen honek erregulazio onaren eta arau-kalitatearen printzipioak betetzen ditu. Ekimena justifikatuta dago hezkuntza-programetan, ezohikoetan eta aldi baterakoetan parte hartzen duten ikasleei behar duten hezkuntza-laguntza eta euskarri juridikoa eman behar zaielako, behar besteko hizkuntza-gaitasuna lortzeko, curriculuma ohiko ikasgelan jarraitu ahal izan dezaten. Denbora horretan, gainerako ikasgaietan kalifikatua ez izateko aukera emango zaie, eta, horrela, hizkuntza-gaikuntzako prozesua eta egokitzapena erraztuko dira.

Hezkuntza Sailak araudi hau proposatzeko duen eskumenari dagokionez, ahalmen hori honako hauetan oinarritzen da: Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.3 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 12. artikulua, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretua.

Gai hori arautzen duen arauaren mailak agindu bat izan behar du.

4. ORDENAMENDU JURIDIKOAN IZANGO DUEN ERAGINA

Araugintza-ekimen hori bat dator gainerako ordenamendu juridikoarekin, estatukoarekin eta Europar Batasunekoarekin, eta ziurtasuneko arau-esparru bat sortzen du, errazago ezagutzeko eta, ondorioz, eragindako pertsonen eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko.

Gainera, araua bat dator, besteak beste, honako lege hauekin:

- 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.
- Hezkuntza-etapa bakoitzeko curriculuma arautzen duten dekretuak: 75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa; 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa; eta 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Azkenik, Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduaren gainerako artikuluekiko eta ordenamendu juridikoko beste arau batzuekiko koherentzia bermatzen da, eta dagozkion xedapenen bidez aldatzen da.



5. ARAU-PROIEKTUAREN AURREKONTU-ERAGINA

Proposatutako aldaketak ez du inolako eraginik aurrekontuan, ebaluatzeko moduan aldaketa txiki bat egin baita.

Era berean, ez da proposatzen inolako organo, unitate edo lanposturik sortzea, aldatzea edo kentzea egitura organikoetan, lanpostuen zerrenda edo katalogoetan edo arauan inplikaturako langileak antolatzeke antzeko tresnetan.

6. GAIAREN ARABERA EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK ETA TXOSTENAK

- Aurretiazko kontsulta herritarrei (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua).
- Hasteko agindua, saileko sailburu titularrena (bigarren atala, 12. eta 13. artikulua).
- Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea (17. artikulua).

Nahitaezko eta funtsezko txostenak eta/edo irizpenak eskatuko zaizkie honako organo hauei (19. artikulua):

- Hezkuntza Saileko zerbitzu juridikoen txostena.
- Enpresan izango duen eragina ebaluatzea.
- Haur eta nerabeen gaineko eraginaren ebaluazioa.
- Generoaren arabeko eraginaren ebaluazioa.
- EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena.
- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren txostena.
- Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eman beharrekoa.

Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak jasoko dituen, 6/2022 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.- EUOPAR BATASUNEAN IZAPIDETZEA

Xedapenak ez du izapiderik egin behar Europar Batasunaren aurrean.

8. IDAZKETA ELEBIDUNERAKO METODOA

Bi hizkuntza ofizialen (gaztelania eta euskara) arteko baliokidetasun juridikoaren printzipioa gauzatze aldera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egingo du arau-testuaren euskarazko itzulpena, zerbitzu horrek baitu lege-proiektuak gaztelaniatik euskarara itzultzeko eskumena, Eusko Legebiltzarrera bidali aurretik, otsailaren 29ko 38/2000 Dekretuaren 4.1 a) artikuluan xedatutakoaren arabera.



Hori guztia dela eta, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Prozedura hastea.

Agintzea hasiera eman dakiola Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Agindua aldatzen duen agindu-proiektua egiteko prozedurari. Agindu horren bidez arautzen dira haur-hezkuntzako ebaluazioa eta oinarritzko hezkuntzako eta batxilergoko ebaluazioa, mailaz igotzea eta, hala badagokio, titulazioa.

Bigarrena.- Izapidetzeko organoa izendatzea.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza izendatzea prozedura hau izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena.- Prozedura.

Proiektu hau egiteko prozedura Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean eta harekin bat datozen gainerakoetan ezarritakora egokitu beharko da, eta beharrezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak bete beharko ditu, Aholkularitza Juridikoaren txostenak horretarako ezartzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den eguna.

BEGOÑA PEDROSA LOBATO

Hezkuntzako sailburua